

Konparatiboak:

01.- Ipuingintzaren xehetasunak zehaztea asko kostatu zaitzaigun; baiata ere, edariak lortzea (95-9-26)

_____ adina _____
_____.

02.- Janari onak jatea adina gustatzen zaio ardo finak edatea. (95-5-20)

_____ baino gutxiago
_____.

03.- Allendeko bidea zaharra zen. Iturriak ere horrelako behar zuen izan. (95-10-10)

_____ bezain _____.

04.- Irakurketa hau interesgarria da, baina beste hori askoz interesgarriagoa. (94-4-30)

_____ adina.

05.- Beharbada, helburu eta xedeen definizioa baliabide materialak baino garrantzitsuagoa izango da. (93-9-23)

_____ bezain _____.

06.- Aurten idazlan ugari heldu zaigu aldizkarira; denak ezin izango ditugu argitaratu. (92-5-16)

_____ baino _____
_____ ditugu.

07.- Atsekabea baretzen den heinean, argiago ageri da galeraren larria. (93-6-10)

_____ ahalean _____.

Konparatiboak:

01.- Ipuingintzaren xehetasunak zehaztea asko kostatzen da; baita ere, edariak lortzea (95-9-26)

Ipuingintzaren xehetasunak zehaztea adina kostatzen da edariak lortzea.

02.- Janari onak jatea adina gustatzen zaio ardo finak edatea. (95-5-20)

Ez zaio janari onak jatea baino gutxiago gustatzen ardo finak edatea.

Ardo finak edatea ez zaio janari onak jatea baino gutxiago gustatzen.

03.- Allendeko bidea zaharra zen. Iturriak ere horrelako behar zuen izan. (95-10-10)

Allendeko iturriak bidea bezain zaharra izan behar zuen.

04.- Irakurketa hau interesgarria da, baina beste hori askoz interesgarriagoa. (94-4-30)

Irakurketa honek ez dauka besteak adina interesik.

05.- Beharbada, helburu eta xedeen definizioa baliabide materialak baino garrantzitsuagoa izango da. (93-9-23)

Beharbada, baliabide materialak ez dira eta xedeen definizioa bezain garrantzitsuak izango .

06.- Aurten idazlan ugari heldu zaigu aldizkarira; denak ezin izango ditugu argitaratu. (92-5-16)

Aurten aldizkarira heldu zaizkigun lanak baino gutxiago argitaratuko ditugu.

07.- Atsekabea baretzen den heinean, argiago ageri da galeraren larria. (93-6-10)

Atsekabea baretu ahalean, argiago ageri da galeraren larria.